

# Euskara: politika, inkestak eta erabilera

**Xabier Isasi Balanzategi**

*Euskal Herriko Unibertstitatea*

xabier.isasi@ehu.es

Sarrera-data: 2011/02/20 | Onartze-data: 2011/07/30

**Laburpena.** Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2011ko hasieran argitaratutako Euskara: erabilera, jarrerak, politika inkestaren harira idatzi du Xabier Isasi soziologoak bere iruzkin kritikoa. Inkestaren metodoaren inguruko gogoetak plazaratu ditu, galdeketaren diseinuan ikertzailearen xedeak neurri batean bideratuta daudelakoan. Euskararekiko jarrerak, pertzepzioak eta hizkuntza-politikari buruzko iritzien inguruko galdetegia izanik nagusiki, gaztelaniazko eta euskarazko galdetegiaren artean dauden diferentziak ere, agerian jarri nahi izan ditu. “Inkestaren asmo onak zalantzan jarri barik” bai metodoaren aldetik zein hainbat ondorioren aldetik ere bere diferentziak ekarri ditu egileak artikulua honetara. • *Hitz-gakoak: inkesta, jarrera, pertzepzioak, imperialismo linguistikoa.*

**Abstract. Basque: policy, surveys and use.** The sociologist Xabier Isasi has produced a critique on the survey Euskara: erabilera, jarrerak, politika (Basque: use, attitudes, policy) published early in 2011 by the Sociological Studies Office of the Government of the Basque Autonomous Community (region). He reflects on the survey method in the belief that the researcher’s aims are to a certain extent realised in the design of the questionnaire. As the questionnaire is mainly on attitudes and perceptions with respect to Basque and on views to do with language policy, he sets out to draw attention to the fact that there are differences between the questionnaires in Spanish and in Basque. In this paper the author draws attention to his disagreement with respect to the method and certain conclusions but “without casting doubt on the good intentions of the survey”. • *Key Words: survey, attitude, perceptions, language imperialism.*

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2011ko urtarrilean argitaratutako *Euskara: erabilera, jarrerak, politika* inkestak<sup>1</sup> emaitza interesgarri batzuk utzi ditu agerian. Inkestaren fitxa teknikoan aipatzen da bildutako datuak haztatuak izan direla *lurrealdeko arabekako biztanleriaren banaketa erreala eta perfil soziopolitikoaren arabera*. Argitaratutako txostenean, tamalez, ez dugu delako perfil soziopolitikoari buruzko inolako informaziorik aurkitu, ez dakigu, beraz, zeri dagokion perfil hori, datuen ustiapenean erabili den, ez den erabili, haren gainean jasotako informazioak interesik duen, kaltegarria ote den edo Lehendakartzaren barneko kontsumorako informazioa ote den. Batek daki. Halere, metodologiari dagokionez, gure ustez, ikerketa ona da, bai diseinu zein laginketari dagokienez.

Inkestak, bada, dituen beren beregiko ezaugarriak oso interesgarriak iruditu zaizkigu. Aurrenik eta bat euskara Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren lehentasunezko gaien artean dagoelako. Hori, berez, ez da txarra, egin nahi duten politikaren arabera, jakina. Telefonoz elkarrizketatuen erantzunak, beste aldetik, nahiko argiak eta adierazgarriak izan dira. Oro har, euskararen alde eta euskara sustatzearen alde.

## 1. POLITIKA

Poztu gaitu, behingoagatik, euskararekiko jakin mina Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzaraino iristea eta ez izatea Kultur Saileko kezka ia eskusiboa. Ez dira asko Lehendakartzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak euskarari buruz egindako inkestak eta azterketak, orain artean eginkizun hori, ia modu eskusiboan, Kultura Sailaren mendeko HPS erakundearen ardura izan da-eta. Aurrerapausoa da Lehendakartzak bere eginkizunen artean hartzea, euskarak garrantzia politiko handiagoa hartu duela dirudi.

Badu, eduki, bere garrantzia inkesta nork egin duen jakitea. Erabilitako metodologian eta inkestaren edukietan bertan egilearen kezkak eta jakin gurak, zuzenean edo zeharbidez, agertzen direlako. Hau da, inkesta honek edukietan eta erabilitako metodologian ezaugarri bereizgarriak dauzka.

Inkestetan, edozein inkestan, oro har, zer galdetzen den eta nola galdetzen den inkestatzailearen xedea eta benetako jakin gurei lotzen zaizkie. Hau da, elkarrizketatuek izan dezaketen euskararekiko atxikimenduaz zerbait jakin nahi badugu horri buruz, atxikimenduaz, zuzenean edo zeharbidez, galdetu behar diegu; ez badiegu galdetzen elkarrizketatuen euskararekiko atxikimenduaz deus ere jakin barik geratuko gara. Hori horrela, inkesta honetan zertaz galdetzen da? Euskara dela eta ez dela, zerk kezkatzen dio Lehendakartzari?

**Inkestetan,  
edozein inkestan,  
oro har, zer  
galdetzen den eta  
nola galdetzen  
den  
inkestatzailearen  
xede eta  
benetako jakin  
gurei lotzen  
zaizkie.**

**Perpausak  
korapilatzen  
baditugu  
inkestatuaren  
erantzuna  
zailtzeaz gainera,  
elkarrizketatuaren  
erantzun-joeran  
eragiteko  
arriskua  
daukagu.**

Inkestak sei eremu jorratzen ditu: Euskararen ezagutza eta erabilera, erabilera esparruak, pertzepzioak eta jarrerak, hizkuntza politika, eskolaz kanpoko ikasketa eta ikasketen onarpena. Horiek izan dira, kasu honetan behintzat, Lehendakaritzaren jakin esparruak; ez hiztunen eskubideak, ez euskararekiko atxikimendua, ez hizkuntza-paisaia eta ez bestelakorik. Lehendakaritzak, inkestaren bitartez, jakin nahi izan du EAEko herritarren euskararen ezagutza eta erabilera nolakoa eta zenbatekoa den, jarrera batzuk nolakoak dituzten eta Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikarekiko iritziak zelakoak diren.

Inkestaren xede eta jakin guran, ezagutza eta erabilerari buruzko atalak gerorako utzirik, iritzi orokorra, pertzepzioak, jarrerak eta hizkuntza politika ataletan galdetzen dena aztertuko dugu.

### **1.1 Iritzi orokorra**

Euskarari buruzko iritzi orokorrari dagokionez, elkarrizketatuei bi esamoldeen artean bat aukeratzea eskatzen zaie, bat **ala** bestea hautatzea, alegia. Inkestan erabilitako hizkuntzetan, gaztelera eta euskara, aldatu ditugu hona.

*a) Niretzat, euskara euskal herritarren hizkuntzetako bat da, ez euskal herritarren hizkuntza bakarra. // [Para mí, el euskera es una de las lenguas de los vascos, no la lengua de los vascos.]*

*b) Niretzat euskara euskal herritarren berezko hizkuntza da. // [Para mí el euskera es la lengua por excelencia de los vascos.]*

Gaztelera, gure ustez galderaren jatorrizko hizkuntza, eta euskaraz, handik itzulitakoa, hautatu beharrekoak, *a)* eta *b)*, ipini ditugu. Elkarrizketatuek, jakina, *Ez daki/Ez erantzun* esateko hirugarren aukera zeukaten.

Gure lehengo zalantza da ea *a)* eta *b)* aukerak *benetan* elkarren kontrajarriak ote diren. Hau da, bat hautatzeak bestea ukatzea ote dakarren, izan ere, metodologikoki horrela behar baitu izan eta, gainera, jasotako erantzunetan hori gertatzen da. Bigarren zalantza, berriz, hizkuntzen arteko korrespondentziari dagokio, adibidez, *euskal herritarrak*, gaztelera *vascos* esatea egokia iruditzen zaigu. Halere, *a)* aukeran, euskaraz, *hizkuntza* bakarra esatea ez dator bat, gaztelera, la lengua adiera sotilarekin; zergatik euskarazko itzulpenean esamoldeari erantzi diote bakarra hori?

Inkestan, galdesorta egituratua eta itxia erabili da. Ulertzen dugu, beraz, inkestako item bakoitzak proposamen bat, bat bakarra, aurkeztu behar duela. Bi edo proposamen gehiagoko itemak nahasiak eta erantzuteko zailak izaten dira-eta. Itemeko perpausen egitura ahalik eta sinpleena

erabili behar da, ahal dela, baiezko esaldi labur bat gehiegi jantzi gabe. Argia eta zuzena. Adibidez: *Euskara euskal herritarren hizkuntza da*. Nahi bada, baieztapenaren zorrotasuna leuntzeko edo, aurretik iritzizko esamolde bat erantsi dezakegu: *Nire ustez, euskara euskal herritarren hizkuntza da*. Proposamen argiak, zuzenak eta laburrak, beraz.

Perpau sak korapilatzen baditugu inkestatuaren erantzuna zailtzeaz gainera, elkarrizketuaren erantzun-joeran eragiteko arriskua daukagu. Agian, hori bilatzen da horrelako kasuetan: inkestatuen erantzunetan eragitea. *Niretzat, euskara euskal herritarren hizkuntzetako bat da*, izan daiteke adibide zuzena, proposamen argia eta zuzena da, non elkarrizketuari eskatzen zaion aurka / ados eskala batean bere iritzia adieraztea.

Bi proposamen item berean nahasten baditugu, inkestatuak erantzun bakarreko aukera duenean, ordea, erantzutea eta erantzunak interpreta-tzea zailagoa da. Adibidez: *Niretzat, euskara euskal herritarren hizkuntzetako bat da*, ez euskal herritarren hizkuntza bakarra, formatu horretako esaldiekin ez diogu inkestatuari laguntzen, erantzun zuzena zein daitekeen iradoki-tzea ez bada, aurreneko esaldian inplizitu adierazten baita euskara ez dela euskal herritarren hizkuntza bakarra (dauden edo egon daitezkeen) hizkuntzetako bat baizik. Erredundantzia hori zergatik erabili da?

Edozein kasutan item honetako *a)* aukeran, ideia bakar bat baino, bi proposamen aurkezten zaio elkarrizketuari, biak bateragarriak badira ere.

1. proposamena	2. proposamena
Niretzat, euskara euskal herritarren hizkuntzetako bat da. [Para mí, el euskera es una de las lenguas de los vascos.]	Niretzat, euskara ez da euskal herritarren hizkuntza bakarra. [Para mí, el euskera no es la lengua de los vascos.]

Arazoa da posible dela 1. proposamenarekiko iritzi bat izatea eta 2. proposamenarekiko, berriz, beste bat desberdina. Biak batera jartzen baditugu, ostera, batekiko eta bestearekiko iritzi berbera ematen behartzen dugu elkarrizketatua.

Lehen aipatzen genuen beste arazoa da *a)* eta *b)* aukeren arteko kontrajarritasuna. Gure ustez, ez dira elkarren kontrajarriak eta, berez, posible da *a)* eta *b)* aukeren alde egote, bien alde edo bien aurka. Adibidez, proposa genezake: *Niretzat, euskara euskal herritarren hizkuntzetako bat da, euskal herritarren berezko hizkuntza, hain zuzen ere*. Edo, nahi bada, *Niretzat, euskara euskal herritarren hizkuntzetako bat da, ez euskal herritarren hizkuntza bakarra, euskal herritarren berezko hizkuntza baizik*. Esaldi horretan oso argi geratzen da, gure ustez, *a)* eta *b)* aukerak elkarren bateragarriak direla.

**Objektu batekiko jarrera definiturik izan ahal izateko, lehenbizi, ezinbestean, objektu hori ezagutu behar da, ezagutzen ez ditugun objektuekiko ez ditugu jarrerak eraikitzen.**

Hizkuntzen arteko korrespondentziari, korrespondentzia ezari, dagokionez, bigarren erantzun-aukeran, *b)*, euskarari berezko *hizkuntza* izendatzen zaion bitartean, gazteleraz *lengua por excelencia* deitzen zaio. Bistan da ez dela gauza bera, begiratu, adibidez, Elhuyar Hiztegi entziklopediakoak *por excelencia* lokuzioari ematen dion euskal ordaina.


## 1.2 Pertzepzioak

Atal honetan inkestan lau item jorratzen dira, guztiak euskararen balio instrumentalari begira; lau horien artetik batek eman digu arreta. Kasu honetan elkarrizketatuak adierazi behar du esamoldearekin ados/aurka dagoen bost puntutako eskala batean. Ikus dezagun bigarren esaera:

2. Gero eta jende gehiagok egiten du protesta euskara inposatzen ari direla uste duelako. [Cada vez hay más gente que protesta porque cree que se está tratando de imponer el euskera.]

Zer jakin nahi da galdera honen bitartez, ea elkarrizketatuek uste duten protesta egiten dutenak gero eta gehiago diren, edo, euskara inposatzen ari ote den? Edo gauza biak? Edo, euskara inposatzen ari denez, protestan gero eta jende gehiago ote dabilen?

Item honetan, berriro ere, bi proposamen batera jarri dira. Ikus dezagun.




Baten bat oso ados etor daiteke *euskara inposatzen ari direla* ideiarekin eta nahikoa aurka *gero eta jende gehiagok egiten duela protesta* esaerarekin. Edo ez? Hizkuntzen arteko korrespondentziari begira, berriz, gazteleraz (jatorrizko?), *está tratando* —¿Quién a quién? — horrek euskarazko *ari dela* beharko luke, *ari direla* —Nor, haiek? — barik.

### 1.3 Jarrerak

Jarrerak, oro har, objektuekiko joera ikasiak dira. Objektua esaten diogu pertsonaren arreta-puntua izan daitekeen edozein ezaugarririk, izan daitezke gauzak, pertsonak, ideiak edo, kasu honen antzera, hizkuntza. Objektu batekiko jarrera definiturik izan ahal izateko, lehenbizi, ezinbestean, objektu hori ezagutu behar da, ezagutzen ez ditugun objektuekiko ez ditugu jarrerak eraikitzen. Izan daitezke aurreiritziak, baina hori beste gauza bat da. Adibidez, *Txutsiztan* herrialdeko biztanleen aldeko edo kontrako jarrera izatea ezinezkoa da herrialde hori ezezagun zaigulako, guk asmatu dugu-eta. Gerta daiteke, gertatzen da, objektua ezagutu arren bereizteko gauza ez garenean harekiko jarrera ezin eraikitzea. Adibidez, *aho-gingila* edo hizkuntza bakar bat besterik ezagutzen ez duenari bere hizkuntzari buruzko jarreraz galdetzea, segur asko, horrelako kasuetan pertsonak ez dute objektu horiekiko jarrerarik eraikitzen.

Jarrerak neurtzeko, aurreko kasuaren antzera, prozedura bera erabiltzen da: proposamen baten aurrean ados/aurka 5 puntuko eskalan ebaluatzea. Guztira, elkarrizketatuei sei item aurkezten zaizkie, guztiak euskararen alderdi instrumentalari loturik. Sei horietatik, lau apartatu ditugu. Laburtu beharrez, gure iruzkinak eta ikuspegiak esamoldeetan bertan txertatu ditugu; irakurle bakoitzak bere interpretazio propioak egin ditzake.

1. HOBETO KOMUNIKATZE[a]KO, (munduan hizkuntza bakarra izatea) LITZATEKE IDEALA. [LO IDEAL SERIA (que hubiera una única lengua en el mundo para) COMUNICARNOS MEJOR.]




**Gure ustez,  
erabilitako item  
horietan,  
zeharbidez,  
inkestaren xedea  
zein izan  
daitekeen eta  
inkestagileen  
ikuspegia  
nolakoa den  
antzerian  
daitekeelako.**

2. Euskara galtzea niri ez zait arazoa iruditzen. (Galdu, nork?) [A mi no me parece un problema que se pierda el euskera (beste haiena, jakina) ]

4. Euskara zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat (ekonomikoa edo bestela?) [El euskera es una carga para .../...]


6. Hizkuntza guzतिक garrantzi bera dute gizateriarentzat (1) etab izi iraun dezaten neurriak hartu behar dira, (2) hiztun kopurua edozein delarik. [Todas las lenguas son igual de importantes para la humanidad (1) y se han de tomar medidas para que sobrevivan, (2) independientemente del número de personas que las hablan. ] Eta, Eusko Jaurlaritzarentzat?



## 1.4 Hizkuntza politika

Aurrekoetan bezala, honetan ere, prozedura berbera erabiltzen da. Hizkuntza politikaren, itxuraz, 7 eremuren gaineko iritziak bildu nahi dira. Zazpi horietatik guk bost aldatu ditugu hona.


1. Krisi garai hauetan, ez da komeni (euskararen ikasketa bultzatzen (1) eta euskara berreskuratzen (2)) hainbeste diru gastatzea. [En estos momentos de crisis, no conviene gastar tanto dinero (en fomentar el aprendizaje (1) y recuperación (2) del euskera)]



3. *Ezinbestekoa da (jendearen aurrean lan egiten duten) funtzionarioek euskaraz hitz egitea.* [Es imprescindible que hablen euskera los funcionarios (que trabajen de cara al público).] Bakarrik horiek, jakina.

4. *Arriskuan dagoen hizkuntza bat bizirik atera nahi bada, ... /... (Hizkuntzaren bat arriskuan balego...)* [Si quieres salvar una lengua en peligro .../...] Galdetuko balitz, “UNESCOren arabera euskara arrisku egoeran dagoela, ...?”


5. *Ezinbestekoa da (euskararen sustapenean) diru publikoa gastatzea.* [Es imprescindible gastar dinero público (en la promoción del euskera)]



6. *Pixka bat zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea (hain gutxi hitz egiten delarik).* [Es un poco absurdo hacer tanto esfuerzo por el euskera (para lo poco que se habla).] Itzelezko ahalegina egiten dela gauza jakina da, nonbait.



**Inkestaren asmo onak zalantzan jarri barik, inkestan proposatzen den hizkuntza bakarra = komunikazio hobea ekuazioa inperialismo linguistikoaren aldarrikapen behinenekoa da.**



Gure markak eta iruzkinak utzi ditugu han hemen. Irakurleak bere ondorio propioak atera ditzakeela uste dugu. Iritzi orokorra, pertzepzioak, jarrerak eta hizkuntza politika azpiatalak *Politika* (1.1. atala) adierazburura bildu ditugu. Gure ustez, erabilitako item horietan, zeharbidez, inkestaren xedea zein izan daitekeen eta inkestagileen ikuspegia nolakoa den antzeman daitekeelako.

## 2. INKESTAK

I

Erabilitako galderak aztertu ditugu. Metodologiaren ikuspegitik, balioz-kotasun arazo bat baino gehiago egon daiteke eta erantzun *zuzenak*, nolabait, iradokitzen direla sumatu daiteke. Erantzunak ikusterakoan, ordea, harriturik geratu gara.

Gehiengo batek (%54) onartzen du euskara dela *lengua por excelencia de los vascos*. Gehiengo erlatibo batek (%43a %37ren aurrean) ez da bat etortzen ondorengoarekin: *Gero eta jende gehiagok (egiten du protesta) euskara inposatzen ari direla uste duelako*. Gehiengo zabal bati (%84) iruditzen zaio euskara galtzea arazoa dela —ezezko eran zegoen esamoldea—. Gehiengo nabarmen batek (%64) ez du uste euskara zama denik enpresentzat eta merkatarientzat. Azkenik, gehiengo handi batek uste du hizkuntzaren (euskararen) biziraupenerako neurriak hartu behar direla.

Elkarrizketatuei egin zaizkien galderen formulazioa ikusirik, galdera edo item alboratuak zirela ikusirik, ezin itxaro genezake tankera horietako erantzunik. Jasotako erantzunen arabera pentsatu behar dugu, halaberharrez, elkarrizketatuak, oro har, *oso euskararen aldekoak* direla. Hau da, galderetan, inplizituki, iradokitzen zitzaienak ez diela esanguratsuki eragin. Adibidez, gehiengo erlatibo batek (%48a %42aren aurrean) onar-

tzen du *hobeto komunikatzeko*, munduan hizkuntza bakarra izatea litzatekeela ideala; logikoa da erantzun-tasa hori. Halere, elkarrizketatuen %42ak, ia zazpitik hiruk, hizkuntza bakarreko mundua baino nahiago txarto komunikatzea! Errealitatean, jakina, jendea ez da horren ergela, edozein pertsonak ahalik ondoen komunikatzea nahi du-eta, pertsonok nahi ez duguna da gure hizkuntza galtzea, dakizkigukeen bakar bat ere ez. Izan ere, hizkuntzen aniztasuna eta (pertsonen arteko) komunikazioaren kalitatea, guk dakigula, ez daukate erlazio zuzenik edo, izatekotan, hizkuntzen aniztasunak komunikazioa kaltetu baino hobetzen baitu. Inkestaren asmo onak zalantzan jarri barik, inkestan proposatzen den *hizkuntza bakarra = komunikazio hobea* ekuazioa inperialismo linguistikoaren aldarrikapen behinenekoa da:

Komunikazio hobea = Hizkuntza bakarra = Hizkuntza komuna = Hizkuntza nagusia ≠ Hizkuntza gutxitua (Euskara)
--

Lehen esan dugu, inkesta honetan erabilitako galderetan inplizituki antzeman daitezke hizkuntza-politikoaren ideia nagusiak. Ideia horiek Eusko Jaurlaritzarenak izango balira euskararen aldeko hizkuntza-politika baino euskararen aurkakoa dela esango genuke. Zorionez, oraingo honetan, elkarrizketatuek erabat gaitzetsi dute hainbat galderei daren inperialismo linguistikoa eta euskara eta euskararen sustapenaren alde, krisi garaian ere, argi lerratu dira. Agian hori jakin nahi zuen Eusko Jaurlaritzak, bada, orain badauki.

### 3. ERABILERA

I

Erabileraz hitz egin behar dugu, berriro erabileraz! Euskara gutxi erabiltzen da! Nire belarri/begi ninietan garrasi antzeko zerbait da hori. Hori entzuten —irakurtzen— dudanean, beti galdera bera datorkit burura: *Nork erabiltzen du gutxi?* Eta neronek erantzuten diot: *erdaldunek ezin erabil dezaketenez, euskaldunak dira, ezinbestean, euskara gutxi erabiltzen dutena.* Euskaldunek euskara gutxi erabiltzen dutela! Ezet, ezetz, ezetz eta ezetz. Ez da egia, ez da zuzena, euskaldunei leporatzea euskararen erabilera soziala maila urria oinarri zientifikorik ez duen maltzurkeria da.

Orain baino lehenago, askotan, saiatu izan gara azaltzen euskararen ahozko erabilera hitzunen arteko (taldeko) fenomeno dela eta, elebidunen proportzioarekin erlazio zuzena badu ere, erabilera-tasa, ezinbestean eta beti, elbidunen tasa baino txikiagoa izan behar du. Elebidunen proportzioa eta erabilera-tasen arteko erlazioaz eta kalkulu

***Euskaldunek euskara ahal dutena, edo gehiago, erabiltzen dute, euskararen erabilera soziala txikia bada, eta txikia da, erdaldunak euskararen erabilerarako ezinduta daudelako da.***

prozesuetan interesa duenik *Txillardegiren* eredu matematikoaz idatzitakoa irakur dezake.

Artikulu xume honetan ez dugu formulekin eta ekuazioekin inor aspertu nahi. Gure abiapuntua hauxe da: euskaldunek euskara ahal dutena, edo gehiago, erabiltzen dute, euskararen erabilera soziala txikia bada, eta txikia da, erdaldunak euskararen erabilerarako ezinduta daudelako da. Hori uste dugu, esaten dugu eta hori berori da, hain zuzen ere, enpirikoki jasotako datuetatik eratortzen dena. Azken inkestako datuetatik ere. Ea, oraingo honetan, ondo azaltzen dugun.


Euskararen ezagutzari dagokionez, bi datu-iturri aurkitu dugu inkesta honetan. Lehena da elkarrizketak egiteko hautu duten hizkuntza, euskaraz ala gazteleraz, eta, hurrena, elkarrizketatuek eurek euskararen jakite-maileri buruz, ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmenean, erantzun dutena. Elkarrizketarako hautatutako hizkuntzen banaketa hauxe izan da:

1. taula: Inkestan elkarrizketatuek erabilitako hizkuntza (Euskara: erabilera, jarrerak, politika 16. orrialdea, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea 2011)

	Gaztelaniaz: inkestatuak ez daki euskaraz	36
	Gaztelaniaz: inkestatuak badaki euskaraz baina gazteleraz egin nahi izan du	20
INKESTA EGINDEN HIZKUNTZA	Gaztelaniaz: inkestatuak badaki euskaraz zertxobait, gazteleraz egin nahi izan du	22
	Euskaraz zailtasunik gabe	21
	Euskaraz nolabaiteko zailtasunekin	1
	Ehuneko bertikalak	100

Inkestak telefonoz egin dira, berbetan, elkarrizketen %21a zailtasunik gabe, eta %1a zailtasunekin, euskaraz egin izan dira. Inkestatuen beste %20ak euskaraz, ustez, jakinagatik, elkarrizketa gazteleraz egin nahi izan omen du eta beste %22ak, euskaraz zertxobait jakin arren gazteleraz egin du. Hori da elkarrizketatuek egin dutena eta ondorengoa *esan* dutena dator.

2. taula: Elkarrizketatuen euskararen ezagutza (Euskara: erabilera, jarrerak, politika 4. orrialdea, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea 2011)



*Mintzamenaren* atalean ikus dezakegu elkarrizketatuen %27k euskaraz *ongi* hitz egiten dutela adierazi dutela, %10ak *nahikoa ongi*, %24ak *zertxobait* eta, azkenik, *ezar ez* dakitenak %39k. Elkarrizketatuen erantzun hauek ez datoz bat aurreko emaitzekin, baliteke datuen haztatze prozesuaren eragina izatea. Edozelan ere, badakigu, seguru, elkarrizketatuen %21ek euskaraz hitz egiten ondo dakiela elkarrizketa bera euskaraz egin delako arazorik gabe. Egon daiteke, egon, euskaraz hitz egiten *ongi* jakinagatik, elkarrizketa gazteleraz egitea nahiago izan dutenak, %6 inguru 2. taulako datuak begiratzen badugu. Ederto. Alabaina nola da posible, telefonoz egindako elkarrizketan (1. taula), mintzakideen %20ak euskaraz jakitea esan eta inkesta gazteleraz egitea? Hau da, aurreneko taulako datuen arabera (1. taula) inkestatuen %42ak (!!) euskaraz ei daki eta beste %22ak zertxobait daki! Zuzenean galdetzen zaienean (2. taula), berriz, mintzatzen ondo edo nahiko ondo dakitenak %37 eta zertxobait dakitenak %24.

Edozelan ere, inkestaren aurkezpen txukunak, datu soilak eta interpretaziorik gabe, aukera ematen digu zenbait irakurketa eta gogoeta egiteko. Lehengoa da euskararen ezagutzari dagokionez ez dela aurrerapen handirik izan 2006. urtez geroztik. Elkarrizketatuen %45ak euskaraz *ongi* edo *nahiko ongi* ulertzen duela adierazten badu ere, bakarrik %37ak esaten du euskaraz *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten duela. Azken horiek (%37) izango lirateke, adiera hertsian, hiztun elebidunak.

Demagun, *A* hizkuntza nagusia eta *B* hizkuntza gutxitua, hizkuntzen arteko ukipen egoeran bizi zaretenoi galdetzen dizuegula: *Zure Bren eza-*

**Euskaldunek, oro har, ahal dena eta gehiago egiten dute. Erdaldunak dira euskararen erabilera-tasa handiagoa izatea eragozten dutenak.**

gutza eta erabilerari dagokionez, nola hitz egiten duzu B? Ongi, Nahiko Ongi, Zertxobait, Ezer Ez. Demagun erantzuten didazuela Zertxobait. Inplizitu geratzen da beste hizkuntzan, A hizkuntza nagusian, nahiko ondo edo ondo hitz egiten duzuela, jakina. Kontuan hartu, hizkuntza nagusiaren jakite-mailaz ez zaizuela galdetzen eta, galdetzen ez bada, halabeharrez, suposatu behar dugu hiztun guztiek dakitela eta, oro har, ondo dakitela. Gero galdetzen dizuegu: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago edo erosoago? Lehen B hizkuntzaz bakarrik zertxobait hitz egiten (dakizuela) duzuela esan badiguzue, koherenteki, A hizkuntza nagusian errazago edo erosoago egiten duzuela erantzun behar diguzue. Beste kontua izango litzateke, B hizkuntzaz ongi edo nahiko ongi hitz egiten (dakizuela) duzuela esaten badiguzue, orduan, Bz errazago edo erosoago hitz egiten duzuela aitortzea sinesgarria izan zatekeen.

Harrigarria da inkestan, elkarrizketatuen %61i, euskaraz ongi, nahiko ongi eta zertxobait hitz egiten (dakiten) dutenei euskararen erabileraz galdetzea, guztiek hitz egiteko kompetentzia maila bera izango bailuten. Logikoki, hiztun horiei galdetzen diegunean: Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago edo erosoago? Gehiengo batek (%61a) *Gaztelania* erantzutea. Bestelakoa ezin zitekeen kontuan hartzen badugu hiztun horien artean ia %40ak euskaraz erdipurdi dakiela hitz egiten. Ez da zuzena. Galdetzen den moduan, elkarrizketatuen erantzunak *bideratu* egiten dira eta, inkesten emaitzak interpretatzerakoan, iradokitzen da euskaldunen gehiengoak (%61) gaztelaniaz errazago eta erosoago hitz egiten duela. Adiera hertsian, ostera, ezin esan dezakegu halakorik.

Euskararen erabileraz esaten denaren gainean beste horrenbeste esan dezakegu. Kotsideratzen bada, elebidunen proportzioa %61ekoa dela, inkestan egiten den moduan, itxaro daitekeen euskararen erabilera maila (soziala) %29 ingurukoa izango litzateke. Kotsideratzen badugu, berriz, hiztun elebidunen proportzioa %37koa dela (*zertxobait* besterik ez dakitenak kenduta), orduan, itxaro daitekeen erabilera maila %9raino jaitsiko litzateke.

Zer erantzun dute elkarrizketatuek, guztiek, euskararen erabilerari buruz galdetu zaienean? Familian, beti euskaraz %13, lanean/ikastetxean, beti euskaraz %14 eta lagun artean beti euskaraz %9 egiten dutela. Hau da, euskaraz BETI egiten dutenaren proportzioa ausaz itxaro zitekeena edo handiagoa da. Euskararen erabileraren problema ez dira euskaldunak erdaldunak baizik. Euskaldunek, oro har, ahal dena eta gehiago egiten dute. Erdaldunak dira euskararen erabilera-tasa handiagoa izatea eragozten dutenak. ●

## **OHARRA**

1. <http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-17354/es/>